

Erabiltzaileekiko harremana pertsonala eta aurrez aurrekoa izango da.

- **Harreman pertsonala:** Hilean behin erabiltzaile bakoitzarekin aurrez aurre egongo gara eta harreman pertsonalizatua emango diegu eta gurekin harremanetan jartzeko sakeleko telefonoaren zenbakia edo e-maila emango dizkiegu.
- **Harreman aurrez-aurrekoa:** Ondoren, bakoitzarekin egon eta gero, denok elkartuko gara eta beharrak zein ideiak elkarbanatuko ditugu. Era horretara, emaitzak denon artean har ditzakegu. Bilerak baserrian izango dira eta mahai borobil batean, denok elkarren aurpegia ikusiz.

Erabiltzaileek bezero izateaz gain bazkide izateko aukera izango dute, horrela gurekin lan egin dezakete eta gure helburuak lortzen lagunduko digute.

Bi perfilen (bezero eta erabiltzaile) ezaugarriak desberdinak izango dira.

- Bezeroak: Hauek diru kopuru zehatz baten truke gure zerbitzuaz gozatzeko aukera daukate.
- Bezero eta bazkide aldi berean: Hauen kasuan, ordaintzen duten diru kantitatea baxuagoa da, baina pribilegio hori bermatu ahal izateko beraien denboraren zati bat zentroari eskaini beharko diote gure beharrak asetzen laguntzeko. Behar mota desberdinez hitz egiten ari gara, esate baterako: baserrian konponketa batzuk egitea (paretak marraztea, noizean behin garbiketaz arduratzea...), merkatuan barazkien salmentan parte hartzea...

Bazkide izateko hurrengoko baldintzak beste erabiltzaileetatik desberdintzen zaitu: kuotaren ehuneko ehuna ordaindu ezin izatea (esate baterako, arazo ekonomikoak direla eta).

Umeak aurrera eramandako ekintzetan motibatuta jarrai dezaten, naturarekin lotutako jarduerak egingo ditugu, esate baterako: txangoak, fruitu eta hosto desberdinen bilketa eta sailkapena, etab. Gainera, animaliekin harreman zuzena izango dute.

Mara-Mara izeneko eskola alternatiboko umeekin elkartuko gara zenbait ekintza edota txango egiteko, baita bezeroekin aliatuak egiteko asmoz.

Gurasoen ahotsa kontuan izateaz gain, haurren erabakiak esanguratsuak izango dira ere. Hau da, gure plangintza eta antolakuntzan eragina izan dezakete eta ekintzen aukeraketa egiteko egun bat ezarriko da, haien nahietara moldatzeko helburuarekin. Era horretara, eskola honen parte sentituko dira eta ez dira erabiltzaile hutsak izango baizik eta partaide izena hartuko dute.

Gure bezeroaren asetasun maila positiboa eta pozik egon daitezen bermatzeko, zenbait estrategia proposatu ditugu haiek erakartzeko asmoarekin:

Baserrian hilabete daramatenak eta jadanik ekintza ugari bizi izan dituztela kontuan izanik, 7 urtetik gorakoei inkesta bat banatuko zaie haien jarduera gogokoenak hautatzeko edota beste jarduera berriren bat proposatzeko helburuarekin. Aldiz, 7 urtetik beherako umeekin saio oso bat hartuko dugu, ondo pentsatzeko lasai-lasai denbora ihartu eta gustoko dutena adierazteko gurekin hitz egiten duten heinean.

Abantail bezala, aipagarria da nahi duten gurasoei hiruhilabetero gurekin elkarrizketa pertsonala izateko aukera eskainiko zaiela. Gainera, urtero "gabonetako saski" pare bat banatuko ditugu, zoriz egingo dugun zozketa baten bidez. Hau da, bi sari egongo dira.

Bukatzeko, bezeroekin elkarbizitza osasuntsu bat eta gure arteko konfiantza sustatzeko asmoarekin gurasoekin eta umeekin asteburu pasa bat egingo dugu. Horrela beste ingurune bat ezagutzeko aukera izango dute.